

413/2022 EBAZPENA, azaroaren 11koa, Uribeko ESIko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Uribeko ESIko Mekikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren

AURREKARIAK

Uribeko ESIko zuzendari-gerentearen martxoaren 24ko 103/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Uribeko ESIko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko uztailaren 13ko EHAA 135. zk. eta 2022ko uztailaren 23ko BOE 176. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko abuztuaren 16an amaitu zen.

Uribeko ESIko zuzendari gerentearen urriaren 25eko 393/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Uribeko ESIko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Mekikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Atal Sanitarioko buruaren lanpostua betetzeko lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Urduliz, 2022ko azaroaren 11.

Uribeko Esko zuzendari-gerentea,
Eskuordetzaz sinatua (170/2021 Ebazpena, martxoaren 30ekoa)

Langileen zuzendaria, ZUZENDARITZA

IANIRE LAMIKIZ MOREIRA.

I. ERANSKINA

**URIBEKO ESI-KO MEKIKUNTZA FISIKOKO ETA ERREHABILITAZIOKO ATAL
SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- JUAN IGNACIO REOYO DIEZ

Baztertuak:

- BAT ERE EZ

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II. ERANSKINA

URIBEKO ESI-KO MEKIKUNTZA FISIKOKO ETA ERREHABILITAZIOKO ATAL SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: Isabel Montes Alvaro and.

Ordezkoa: David Cantero González jn.

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Ander Alava Menica jn.

Ordezkoa: Luis Socias Amezua jn.

Bigarren batzordekidea

Titularra: Elena Martínez García and.

Ordezkoa: Salvador Ivan Carbajo Martínez jn.

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: Isabel Camargo Ibarra and.

Ordezkoa: Koldo Berganzo Corrales jn.

Laugarren batzordekidea (IVAPek proposatutakoa):

Titularra: Pedro Ignacio Tejada Ezquerro jn.

Ordezkoa: Susana Pinedo Otaola and.

Idazkaria:

Titularra: Dña. Amaya de Allende Achalandabaso and.

Ordezkoa: Dña. Karmele Iglesia Rosende and.